

4

Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako Irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa

Yolanda Olasagarre Mendinuetga

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa

Esther Mugertza Imaz

Euskara Atala. Nafarroako Hezkuntza Departamentua

Sarrera-data: 2015-09-03 / Onartze-data: 2015-10-15

Laburpena. Gure ikasgeletan ahozko hizkuntza lantzeko beharra ikusi ondoren, ekin genion ahozkoaren lanketa modu sistematikoan eta egingarrian egiteko bideari. Gu jantzi, irakasleei prestakuntza eman eta sekuentzia didaktikoak prestatzen eta gelaratzen hasi ginen haiekin batera. Hausnarketa, prestakuntza eta ahozko sekuentziak gelaraztetik sortu da ikusgai jarri dugun material guztia, horretarako propio sortutako webgunean: oinarri teorikoak, txantiloak, sekuentzia didaktikoak, balorazioak, bideoak, eta abar. Helburua baita, hori guztia erabilgarria izan dadin, euren geletan --gure ikasleak ahozkoan trebatzeko, noski-- ahozkoa modu sistematikoan landu nahi duen edozein irakaslerendako. Egindako ibilbide horren laburpena jasotzen du artikulu honek. • **Hitz gakoak:** ahozkoa, sekuentzia didaktikoa, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Haur Hezkuntza, motibazioa, erabilera, hizkuntz gaitasuna.

Abstract. After becoming aware of the need to develop oral language in our classrooms, we embarked on working on oral language in a systematic, feasible way. We trained ourselves, gave the teachers some training, and together with them we started to prepare didactic sequences and implement them in the classroom. All the material we included in the website set up for the purpose had emerged out of the classroom implementation of reflections, training and oral sequences: theoretical bases, templates, didactic sequences, assessments, video sequences, etc. The aim is in fact to render all this usable in their classrooms so that it can be used to develop our students' oral skills by any teaching staff wishing to develop oral language in a systematic way. The article provides a summary of the work carried out. • **Key words:** Oral, didactic sequence, Primary Education, Secondary Education, Pre-Primary Education, motivation, use, language proficiency.

1. SARRERA

Duela bederatzi urte, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalak Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroarekin batera hartu zuen bidea azaldu nahi dizuegu. Euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoari ekin genionetik izandako bilakaera laburtuko dugu. Nahiko planteamendu gordina eta lehenatasunezkoa egin behar izan genuen, euskararen irakaskuntzaren egoeraren nondik norakoa aztertu ondoren. Horretarako, zenbait adierazle kontuan hartu izan ditugu:

- Momentu oro izan ditugun baliabideak, pertsonalak zein materialak (oso urriak izan baitira).
- Irakasleen iritziak, baita hainbat aurreiritzi ere, kezka eta per-
tzezioak (esate baterako, ikasleek ez dutela euskaraz egiten,
euskaraz egiten dutena modu ez egokian edo traketsean dela).
- Ikastetxeetan sustapen arloan egindakoa.

Gure proposamena testuinguru horretan ulertu behar da. Guzti hori, gainera, zaildu egin da krisi egoerarekin; hala ere, lehentasunak nahiko zehaztuta genituenez —mantoago edo azkarrago—, beti bide horretan egin dugu aurrera, perspektiba (norabidea) galdu gabe.

Jakina da gu ez ginela hutsetik abiatu, aurretik egindakoa aztertu genuen eta, noski, erabili dugu. Lehendik abian ziren zenbait egitasmo eta alde z aurretik egindako plangintzak kontuan hartu ditugu gure prestakuntza antolatzeke. Egitasmo horietako gehienak ondoko irudian jaso genituen 2011n, “Eskola hiztun bila” jardunaldietan eman genuen hitzaldirako:

1. irudia: Euskara sustatzea ikastetxean



*Irakasleen
formaziotik horri
guztiari
erantzuteko
beharra ikusi
genuen, eta
horrek
euskararen
sustapenean
dagoen
diskurtsoa
egokitu beharra
ekarri zuen:
lehentasunak
zehaztea eta
irakasleen
erdigunea zein
den jakitea eta
transmititzea.*

Irakasle askorekin izan dugu hartu emana eta beraien jarrerak, kezkak eta zalantzak jaso ditugu; baita ikastetxe bakoitzaren ingurune soziolinguistikoa ere.

Irakasleen formaziotik horri guztiari erantzuteko beharra ikusi genuen, eta horrek euskararen sustapenean dagoen diskurtsoa egokitu beharra ekarri zuen: **lehentasunak** zehaztea eta irakasleen **erdigunea** zein den jakitea eta transmititzea (hau da, irakasleak —irakasle rolean— nondik eragin dezakeen gehien eta eragin hori nondik den emankorren). (Mugertza & Olasagarre, 2010)

Horrela sortu genituen, besteak beste, ondoko prestakuntza ikastaroak edo egitasmoak: lehenik, *Euskara sustatzeko bideak: motibazioa eta ahozkoa gelan*; bigarrenik, interbentzioak; hirugarrenik, *MSB bloga*; laugarrenik, *Ahozko Hizkuntza Irakastea ikastaroa*; Ahozko hizkera ez formalak ikastaroa, eta azkenik *Ahozko Hizkuntza Irakastea* gunea.

Prestakuntzaren oinarri metodologikoak:

- Irakaslearen lanaren gaineko gogoeta bultzatuko duen prestakuntza eredua (Esteve, 2007)
- Gelako esku-hartzeen transposizio didaktikoa, hau da, prestakuntza gelan antzeman dadila ikasleengan eta nola antzematen den aztertu.
- Galdetegietatik abiatzen den prestakuntza, hau da, gela barruan egiten den horretatik edo egiten dela aitortzen den horretatik.
- Malgua irakasleekin zein ikastetxeen egoerekin.
- Teknologia berriak erabilita, gauzak asko errazten dituelako eta teknologien erabilera irakasleen beharretara egokitzen delako: moodle plataforma, sekuentzia didaktikoak google driven eraiki, bideo grabazioak (mugikorrekin, zenbaitetan).
- Irakasleen prestatzaileok irakasleen ondoan egotea, haiei laguntzeko, bultzada emateko, animatzeko, konfiantza emateko eta lana eskatzeko ere bai.

2. EGOERAREN DATUAK

— *Euskararen erabilera bultzatzeko azken 2 hamarkadetan* ikastetxeetan egindakoa aztertu genuen, hau da, euskara sustatzeko zer egiten zen eta zeri ematen zitzaion garrantzia (esate baterako, gelatik kanpoko jarduerak antolatzea, ikasleekin egiten diren jolasak euskara sustatzeko). Horren ondorioz, irakasle askorekin izan dugu hartu emana eta beraien jarrerak, kezkak eta zalantzak jaso ditugu; baita ikastetxe bakoitzaren ingurune soziolinguistikoa ere. Hori dena gogoan izatea ezinbestekoa baita.

— *Nafarroako eskolatzeko datuak*. Nafarroako euskararen irakaskuntza ulertzeko hainbat gauza gogoan izatea komenigarria da. Lehenengoa, Nafarroako euskararen legeak ezarritako hiru hizkuntza eremuak, Nafa-

roako egoera soziolinguistikoa (besteak beste, euskaldun kopurua, herri batetik besterako aldea, hiriburuan euskararen egoera zein den, eta abar).


Egoera aski desberdinak ditugu batetik bestera eta erduei dagokienez D (+IIP), B eta A (+IIP) erdua ditugu aintzat hartzekoak. Adibide modura hemen dituzue 2014/15 ikasturteko eskolatze datuak:

1. taula: Nafarroako eskolatze datuak 2014-2015

	D (+B+IIP D)	A (+IIP A)	G	BR-IIP G	BR-IIP G-A-D
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	16.596	12.818	22.921	8.016	13.056
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	6.359	2.565	15.182	1.599	2.052
Helduen DBH	0	0	972	0	0
Batxilergoa	2.079	390	5.743	86	94
Urrutiko Batxilergoa	0	0	311	0	0
Gau Batxilergoa	0	0	409	0	0
Erdi mailako gradua	74	0	4.041	0	0
Goi mailako gradua	97	0	4.067	0	0
Prestakuntzako ikastaroa	0	0	564	0	0
HLKP/HLKPB	0	0	1.158	0	0
Hezkuntza Berezia	23	3	298	0	0
Ikasle Guztiak	25.230	15.776	55.666	9.701	15.202
Ikasleak orotara	106.373				
%	23,72	14,83	52,33	9,12	14,29

D	A	G	BR-IIP G	BR-IIP G-A-D
23,72	14,83	52,33	9,12	14,29

1. grafikoa: Nafarroako eskolatzea 2014-2015. Ereduka



Iturria: Nafarroako Gobernuak Euskara Atala.

**Eskolan bi adar-
begi nagusi
jorratu behar
ditugula uste
dugu: batetik,
euskararen
aldeko
motibazioa eta
atxikimendu
positiboa
bultzatu; eta
bestetik,
euskaraz aritzeko
aukerak etengabe
eskaini gela
eremuan,
euskarazko
ahozko
gaitasunean gure
ikasleak erraz
eta eroso
sentiarazteko.**

— *Ingurune soziolinguistikoa.* Gure herrietan/hirietan euskaraz eskolatutako umeeekin batera euskararekin ia batere harremanik ez duten ikasle asko dugu, eta horren ondorioz, ikastetxean euskara bereganatzen duten ikasleek ikastetxetik at gehienetan ez dute ia batere aukerarik euskaraz aritzeko. Egoera baldintzatzen duten ezaugarri ezberdin anitz izanda ere, oso modu laburrean horixe da gertatzen ari dena, eta euskararen erabilera urria dela-eta, irakasleok, hezkuntza komunitateko partaideok eta gurasoak oso kezkatuta gaude aspalditik.

— *Baliabideak.* Gure eskura ditugun baliabide mugatuak, hau da: prestatzaileok ditugunak (zenbat prestatzaile garen arlo honetan); irakasleen denbora, ikasle kopuruak, prestakuntza baliabideak eta eskola (baliabide gisa) noraino iristen den eta iritsi behar duen ulertzea.


Hori guztia kontuan hartuta, eskolan bi adar-begi nagusi jorratu behar ditugula uste dugu: batetik, euskararen aldeko **motibazioa eta atxikimendu positiboa** bultzatu; eta bestetik, euskaraz aritzeko aukerak etengabe eskaini gela eremuan, euskarazko **ahozko gaitasunean** gure ikasleak erraz eta eroso sentiarazteko. Bi adar hauek uztartuta daudenez, elkarrekin lantzea proposatzen dugu.

3. OINARRI SOZIOLINGUISTIKOA

Euskararen sustapenean aurrera egiteko ezinbestekoa da oinarri soziolinguistikoa izatea eta hor guk, batez ere, bi autore izan ditugu kontuan gure proposamena gauzatzeko. Oinarri soziolinguistikoa kontuan hartuta are nabarmenagoa ageri da motibazioa zein ahozko hizkuntza irakasteko beharra erabileran eragin ahal izateko.

Txepetxen ekarpenari jarraituz (Sanchez Carrion “Txepetx”, 1991), hizkuntzak ikasteko garaian 3 faktorek eragiten dute: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Eskolan euskaraz zein euskara irakasten badugu, 3 atal horiek landu, zaindu eta kontuan hartu behar dira, elkar elikatzen baitute. Bestalde, faktore horien gutxieneko maila behar da batetik bestera jauzia egiteko. Begiratu baso komunikanteen teoria eta hizkuntzak ikasteko ibilbideak ondoko irudian (Zarraga, 2010, 262 or.)

2. irudia: Hizkuntza ikaskuntzaren ibilbideak



Iturria: Hizkuntza ikasteko ibilbide kulturala (Etzegoien "Xamar". 2001)

Badirudi gure eskoletan bigarren faktoreari modu isolatuan ematen zaiola garrantzia, hau da, ezagutzari, eta, batez ere, erabilera idatziari. Guk ikusi ahal izan dugunaren arabera, motibazioa eta ahozko erabilera albo batera ditugu sarritan geletan.

Bestalde, Txepetxen ereduari jarraiki, eskola, besteak beste, hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko tokia izanik, eskolan hizkuntzaren ahozko erabilera ere landu beharko da, ahozko hizkuntza, alegia. Irakaskuntzan gabiltzanontzat Jose Maria Sanchez Carrionek proposatu zituen **hiztun tipoak** ("Txepetx", 1991) interesgarriak eta erabilgarriak dira, ikasle bakoitzaren ibilbidearen eta gaitasunaren adierazgarri izan daitezkeelako. Nahiz eta azkeneko urte hauetan hiztun tipo errealek aldaketak izan dituzten, gure ustez komeni da horiek oinarrian eta gogoan izatea gure ikasleen hizkuntza tipologia ulertzeko:

- AB, jatorrizko hiztun kulturizatuak
- BA, heldu bertakotuak
- A, jatorrizko hiztun primarioak
- B, ikasle helduak
- Ø, ez dakite hizkuntza

**Txepetxen
ekarpenari
jarraituz,
hizkuntzak
ikasteko garaian
3 faktorek
eragiten dute:
motibazioa,
ezagutza eta
erabilera.
Eskolan euskaraz
zein euskara
irakasten
badugu, 3 atal
horiek landu,
zaindu eta
kontuan hartu
behar dira, elkar
elikatzen baitute.**

**Fishmanen
proposamenean
urrats
garrantzitsuena
6. urratsa da,
hau da, gertuko
komunitatean
bermatu behar da
hizkuntzaren
erabilera.**

Fishmanen ekarpena ere aintzat hartzeko modukoa da. Hizkuntza Biziberritzeko Saioek, RLS-delakoek lortu beharko luketena erabilgarria iruditu zaigu euskararen egoerara egokitua dagoelako eta, besteak beste, euskararen egoera aztertuta Fishmanek hizkuntza biziberritzeko 8 urrats proposatzen dituelako. 8 urrats horietako 4.a eskola edo irakaskuntza da (Fishman, 1991). Autoreak diotenaren arabera, urrats garrantzitsua izanik ere, horrek bakarrik ez du hizkuntzaren biziberritzea ekarriko. Sarritan aipatu izan da biziberritze saioetan eskolaren eragina mugatua dela. Fishmanen proposamenean urrats garrantzitsuena 6. urratsa da, hau da, **gertuko komunitatean** bermatu behar da hizkuntzaren erabilera. Horixe da muina, erdigunea eta horrek du lehentasuna.

Hementxe duzue zergatia :

"It may be merely metaphorically enlightening to believe, as Kenneth Burke claimed, that 'men build their cultures by huddling together, nervously loquacious, at the edge of an abyss', but it is inescapably true that the bulk of language socialization, identity socialization and commitment socialization generally takes place 'huddled together' through intergenerationally proximate, face-to-face interaction and generally takes place relatively early in life at that." (Fishman, 1991, 398.or)

Gertuko komunitatea soziologian, batez ere, lehen mailako sozializazio eragileek (Rocher, 1983, 152. or.) osatzen dute: familiak, auzo-giroak, lagunak eta gertu dugun komunitateak, uler dezakegu eskolak ere bai, neurri batean. Horregatik, eskola gertuko komunitatearen parte den neurrian lortu beharko du hizkuntzaren erabilera bere eremu barruan bederen ziurtatzea. Fishmanen hitzetan, gertuko komunitatean bermatu behar da hizkuntzaren erabilera, horiek baitira ama-hizkuntzaren transmisioaren oinarri. Hizkuntza bide hauetatik transmititzen bada, horietan bultzatu eta indartu behar da hizkuntzaren erabilera.

4. MOTIBAZIOA

I

Euskararekiko motibazioa zaindu, landu eta bultzatzeko honela ulertu behar dela uste dugu: motibazioak ikasten ari zaren hizkuntza hori gertu sentitzea dakar, zurea balitz bezala sentitzea; eta, aldi berean, balio afektiboa handitzea eta estutzea motorra da ikasten ari zaren hizkuntza horretan komunikatzeko, hau da, motibazioak indarra eta kemena ematen dizkizu ikasten ari zaren hizkuntza erabiltzeko. Dena dela, artikulua hau ahozkoaren ingurukoa denez, guk motibazioari garrantzia ematen diogulako, hainbat puntu, sakondu gabe, aipatu baino ez ditugu egingo.

Ikastetxeei, prestakuntza eskaintzen diegunean eta irakasleei, motibazioari dagokionez, egiten dutenaren gaineko hausnarketa egin dezaten eskatzen diegunean, kontzienteki jabetzen dira egiten dutenaz eta baita aldatu beharko luketenaz ere. Horregatik, tresnak zein baliabideak eskaintzen dizkiegu egoera alda dadin: interbentzioak, motibazioa sustatzeko bideak, ikaslearengan gehiago oinarritzen den ikuspegi pedagogikoa bultzatzea.

Prestakuntzaren irudia:

3. irudia: "Motibazioa gelan" prestakuntzaren adibidea

Gaia 2
MOTIBAZIOA GELAN Estrategia orokorrak
Zereginak
 4. Zer egiten duzu gelan ikasleak motibatzeko?
 5. Txema Mujika
Irakurgaiak
 Motibazio praktikak
 Txema Mujikaren bideoa
 4. eta 5. jardueren ondorioak laburtuta

Gaia 3
MOTIBAZIOA GELAN Euskararekiko interbentzioak
Zereginak
 6. A. Interbentzioen taula bete (Urriaren 13rako)
 6. B. Interbentzioak eta aholkuak
Irakurgaiak
 Interbentzioen taula
 Interbentzioen inguruko aholkuak

Tresnak zein baliabideak eskaintzen dizkiegu egoera alda dadin: interbentzioak, motibazioa sustatzeko bideak, ikaslearengan gehiago oinarritzen den ikuspegi pedagogikoa bultzatzea.

Irakasleek duten jokaera da interbentzioa, ikaslea gaztelaniaz edota euskaraz hitz egiten aditzen dutenean. Dituzten jokabideak ezagututakoan, aholkuak ematen zaizkie, ikastetxeko irakasle guztiek edo gehienek batera, hainbat jokabide eta jarrera komun har ditzaten.

— **Interbentzioak. Zer dira?** Irakasleek duten jokaera da interbentzioa, ikaslea gaztelaniaz edota euskaraz hitz egiten aditzen dutenean. Irakasleek dituzten jokabideak ezagututakoan, aholkuak ematen zaizkie, ikastetxeko irakasle guztiek edo gehienek batera, hainbat jokabide eta jarrera komun har ditzaten (gela barnean zein kanpoan), alegia, dituzten jokabideak bateratzeko eta adosteko bidea egiten da. Koherentziaz jotzekeko, ikasle berari mezu kontrajarriak ez emateko eta errepikatutako mezuekin inor ez aspertzeko jokabide egokiak adostea proposatzen dugu dokumentu hau betez:

4. irudia: Interbentzioak: irakasleen jokabideak adostea eta bateratzea

1 2 3 4 5

Interbentzioak: irakasleen jokabideak adostea eta bateratzea

Euskara Atala / EIBZ

Nafarroako Gobernua

— **Motibazioa sustatzeko bideak** aurkitzea garrantzitsua da. Jakina denez, ez dago errezeta magikorik horretarako, eta etengabe gogoeta egiten eta ondorioak ateratzen egon beharko dugu. Horren ondorioz, *Motibazioa Sustatzeko Blog*-a sortu dugu; bertan, Bigarren Hezkuntza erabiltzeko moduko baliabideak jaso ditugu. Blogak biltzen dituen ariketak euskararen inguruko hausnarketa bideratzeko prestatu ditugu. Hausnarketak berak gure etengabeko mezu errepikatuek baino eragin handiagoa duelako; alegia, hausnartzeak dakarrelako maiz kontzientzia eraldatzea. Hona blogaren esteka: <http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/>

5. irudia: Motibazioa sustatzeko baliabideak bloga




Motibazioa Sustatzeko Blog-a sortu dugu; bertan, Bigarren Hezkuntzan erabiltzeko moduko baliabideak jaso ditugu.

— Ikaslearengan gehiago oinarritzen den ikuspegi pedagogikoa bultzatzea. Elkarrekintza testuinguru ezberdinak lantzea, hizkuntza modu esanguratsuan erabiltzeko eta hizkuntza zein zientzia ezagutzak erakitzeko. Alderdi honetatik, elkarrekintza ugaritzea eta progresiboki garatzea da gure oinarria. Motibazioak ahozkoan eragiteko ahalmena du, ahozkoaren lanketak (sekuentzian dagoen metodologiak ikaslea motibatzea eragiten du: protagonismoa, negoziazioa...) berriro motibazioa elikatzeke ahalmena duelako.

— Ahozkoa lantzeko premia eta beharra sortzea irakasleengan. Ahozkoa irakasleekin lantzen hasteko eta ahozkoaren planifikazioa eta sistematizazioa beharrezkoak direla ikusteko kontzientzia piztea da lehen urratsa.

6. irudia: Euskara sustatzeko bideak moodle plataforma



“Beharrezkoa da gure ikasleekin gelan ahozkoa lantzea, eta zenbaitetan, denbora eta tarteak dugunean, zer edo zer egiten dugu, baina ia ezinezkoa da horrek gure curriculumarekin bat egitea”.

Modu honetara uztartu ditugu motibazioa eta ahozkoa. Eta, ahozkoa lantzeko beharra sortutakoan, orduan hasten gara ahozkoan sakontzen.

5. AHOZKOA

I

Izandako bilakaera

Ahozko hizkuntza gaitasuna hobetzeko asmoz lanean hasi ginenean, hasteko irakasleei galdetu genien ea ahozko hizkuntza gelan lantzen ote zuten eta ea nola lantzen zuten jakiteko. Egia esan, irakasleen aldetik ere kezka handia zegoen gai honen inguruan, eta azken 5 urteotan hainbat ikastaro eskaini ditugu, bai ikastetxeko egitasmo bezala lantzeko bai Nafarroako irakaskuntzako irakasle solteei prestakuntza eskaintzeko. Esperientzia horiekin batera ikasi dugu, eta guk ikasitakoa erabili nahi duen edonoren esku jarri nahi dugu.

250 irakaslerekin ahozkoaren lanketaren inguruan hitz egin ondoren, nagusitzen den erantzuna paradoxikoa da: “Beharrezkoa da gure ikasleekin gelan ahozkoa lantzea, eta zenbaitetan, denbora eta tarteak dugunean, zer edo zer egiten dugu, baina ia ezinezkoa da horrek gure curriculumarekin bat egitea”.

Halaber, jaso dugun inpresioa da (inpresioa esanen dugu, nahiz eta datu dezente izan) ataka batean gaudela, eta irakasleok ia ezinezkoa sentitzen dugula ataka horretatik ateratzea. Bai, ahozkoa landu, landu nahi dugu; baina ezinezko zaigu prestakuntzarik, betarik, materialik, eta abarrik ez dugulako. Halako etsipen kutsua jaso ondoren, ba egokia eta komenigarria da tarte bat hartzea hausnartzeko, eta ahalik eta datu objektiboenetara jotzea.

Planteamenduaren nondik norakoa hauxe da: ikasleek euskaraz hitz egin dezaten nahi badugu, maiz eta sarritan hitz egin behar dute. Baina, eta eskolatik kanpo euskaraz hitz egiteko aukerak ikaragarri murrizten badira, non egin behar dute euskaraz? Eta kontuan izanda ikasgela dela irakasleak kudeatzen duen berariazko eremua, uste dugu hor eman behar zaiela hitz egiteko aukera; eta hitz egiteaz ari garenean, ez gara ari modu inprobisatuan eta noizean behin galdetzeaz eta betiko hiztunak erantzuteaz. Ahozko jarduera solte espontaneo eta libreak ongi daude, baina guk nahi dugu gure ikasle guztiek hitz egitea eta, gainera, beren jarduna hobetzeko, grabatzea, bideoak ikasleek ere ikustea eta balorazioetan alderdi positiboak nabarmentzea (lorpenak); euskarazko ahozko ekoizpenak hobetzen joan ahala, hitz egiteko gogoia

handitu egingo dela pentsatzen baitugu. Horrenbestez, diskurtso, erre-
gistro eta testuinguru ezberdinetan moldatzen ikastea.

Ikastetxeen ibilbidea

Gurekin urte hauetan formazioan aritu diren ikastetxeak ekarriko ditugu hona, haiekin batera egin dugulako ibilbidea, bidenabar saiatu garelako euren beharretara egokitzen eta gure ikuspegia eta prestakuntza eskaintzen. Bolumen handiko lana izan da: ikastetxe gehienak euskara sustatzeko baliabideak eta bideak eskatzera etorri zitzaizkigun eta, jarraian, horietako batzuk ahozkoaren lanketa gelan nola egin eskatu zutenean prestakuntza hau sortu genuen:

7. irudia: “Ahozko hizkuntza irakastea” ikastaroa

Ahozko hizkuntza irakastea

Berrien foroa
Ebaluazioa
Ikastaroaren bukaerako inkesta

Gala 1
Sarrera-Ahozkoaren ikuspegia eskolan

Joserra Garzia_Ahozkoa zer, nola eta non
Manu Marañon_Ahozkoa zer, nola eta zerfarako
Dolz-en artikulua
ikuspegia: Gaitasun diskurtiboa

Gala 2
Ahozkoa irakastea

Zereginak

1. Nola lantzen duzu ahozkoa gelan?
2. Zer da eskolan ahozotasuna lantzea?

Irakurgaiak

Ahozko hizkuntza lantzen
Ahozkorako materialak sarean-scoop.it

Gure nondik norakoan lagun izan ditugun zenbait ikastetxe aipatu nahi ditugu:

— 2009/10 ikasturtea: *Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak* prestakuntza eman genuen Alaitz IPn, Erreniega IPn, Amaiur Ikastolan, Iturrama BHIn, Pedro de Ursua BHIn eta Altsasu BHIn. Gerora, horietako batzuk ahozkoaren lanketarekin jarraitu zuten.

— 2010/11: Bernart Etxepare IPn; Lizarrako Remontival IPn, Agoizko San Miguel IPn. Bestalde, Altsasuko BHI, Alaitz IP eta Erreniega IPn ahozkoaren lanketarekin kezkutzen hasi ziren eta gu haiei erantzun nahian hasi ginen. Horrela, lehenengo modulua eskaini genuen “*Ahozkoa nola landu gelan*” Altsasuko BHIn.

**Arrazoi ugari
egon daitezke
ahozkoa gelan
lantzeko.**

**Gelan ahozkoa
modu
sistematikoan eta
planifikatuan
lantzea
beharrezkoa.**

**motibazioan
eragiten duelako**

**Ikasle guzti-
guztiak beren
ahozko ekoizpena
(bideoz grabatua)
ikusitako ondoren,
bakoitzak berea,
zertan hobetu
behar duen
ikusten du.**

— 2011/12: Ahozkoa propio eman genuen Agoizko San Miguel IPn, Altsasuko BHIIn, Sanduzelai IPn eta Paz de Ziganda Ikastolan.

— 2012/13: Ahozko ikastaroa on line eskaini zen lehenengo aldiz eta 45 irakaslek, gutxi gorabehera, jaso zuten formazioa. Bestalde, Altsasuko BHIk jarraitu zuen ahozkoa lantzen.

— 2013/14: Altsasuko BHIIn, Leitzako Erleta IPn eta Elizondoko San Miguel IPn. Ahozkoa irakasteko on line ikastaroan sekuentzia ugari ere (33 D ereduari, eta 11 A ereduari) sortu ziren ikastetxe desberdinetako irakasle solteek eginik. Kualitatiboki aurrerapen handia ikusi dugu.

— 2014/15: Altsasuko BHIIn, Ezkaba IPn “Ahozkoaren ebaluazioa”, eta Ahozko Hizkuntza Irakastea gunea osatzen aritu gara. Bestalde, Ezkabak eskatutako ikastaroari esker, ahozkoaren ebaluazioarekin hasi berriak gara.

Eta urte hauetan guztietan, ahozkoaren prestakuntza eskaintzeaz gain, Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak ikastaroa ematen jarraitu dugu, hala eskatu duten ikastetxe zein interesatuentzat, nahiz eta datu hauek ez ditugun hemen aipatu ahozkoaren gaian zentratu garelako. Halere, hasieran idatzi dugun bezalaxe, euskararen erabileran bi lan-ildo hauek uztartuta doazela uste dugu.

Ahozkoa lantzeko zergatiak

Arrazoi ugari egon daitezke ahozkoa gelan lantzeko; guk hauexek nabarmendu nahi ditugu:

— Ikasleek eskolan komunikazio gaitasuna lortu behar dutelako. Jakina da komunikazio gaitasun horren zati bat idatzian gauzatzen dela, baina beste zatia ahozkoan gauzatzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu.

— Ikasleen ahozko jarduna hobetzeko; gelan ahozkoa modu sistematikoan eta planifikatuan lantzea beharrezkoa ikusten dugu.

— Neurri batean, irakaskuntzaren berbalizazioak metodologia aldaketa dakarrelako (ahozko komunikazioaren paradigmak).

— Ikasleen motibazioan eragiten duelako; ikasleek aurrera egiten dutela ikusten dute, irakasleek haien motibazioa eta aurrerapena ikusten dute eta ikasleen parte-hartzeak horretarako bide ematen du.

— Ikasle guzti-guztiek beren ahozko ekoizpena (bideoz grabatua) ikusi ondoren, bakoitzak berea, zertan hobetu behar duen ikusten du.

— Bien bitartean, curriculumeko edukiak ere lantzen ari dira.

— Ikasgai desberdinetako irakasleak elkarrekin lanean ari dira: programazioan, gelako lanketan eta ebaluazioan.

— Eginez ikasten dugulako, eta egindakoaren gainean gogoeta eginez aurreratu dezakegulako.

— Gure hizkuntzaren egoera hobetzeko beharrezkoa dela uste dugu.

Bestalde, eskolan ahozkoaren lanketa planifikatua eta sistematikoa egin behar dela frogatzeko, hona hemen irakasleek esandakoa:

8. irudia: "Ahozko hizkuntza irakastea" sitiesa



Ikuspegiaren oinarriak

Hasieran aipatu duguna: kontuan izatea oinarri soziolinguistikoa, hizkuntzaren didaktika, ikasleen hizkuntza gaitasuna eta eskolaren zeregina.

— Hizkuntzaren didaktikaren gaineko ikuspegia

— Hizkuntza irakastearen helburuak honako hauexek dira: komunikazioa, hizkuntza eta komunikazioaren gaineko gogoeta egitea, eta kultur erreferentziak eraikitzea. (Dolz, Gagnon & Mosquera, 2009).

— Hiruki didaktikoa giltzarria da hizkuntzaren didaktikan, hau da: irakasleek, ikasleek eta edukiak osatutako egitura zein ondoren egiten den edukien transposizio didaktikoa. (Dolz, Gagnon & Mosquera, 2009).

Gure irakasleak trebeagoak dira gaitasun pasiboetan aktiboetan baino; aurrera egin da euskarazko aldaera edo erregistro jaso-formal espositiboetan eta atzera mintza-jardunaren esparru informal-barrenkoi-intimoei dagokienean; aurrera euskara batuaren ezaguera formalean, eta atzera ohiko hots-ebakeran.

**Gure ustez,
eskolak ahozkoa
landu behar du,
modu
sistematikoan,
helburu edo xede
komunikati-
boarekin,
diskurtsorako
prestatu behar
ditugu ikasleak.**

— Dolz: “Ez da nahikoa hizkuntza bat erabiltzea; mintzamenak irakasgaia ere izan beharko luke”. (Dolz, 2006).

— Ahozko testua emaitza soziala da; horregatik, izugarritzko garrantzia ematen diegu gelan helburu komunikatiboari zein testuinguruaren lan-
ketari; Jean-Paul Bronckart-en diskurtsoaren deskribapenak eta Hiz-
kuntzaren Didaktika saileko proposamenak (Dolz, Pasquier eta Sch-
neuwly) oinarri hartuta.

— **Gure ikasleen hizkuntza gaitasuna**

Kontuan hartu behar dugu gure ikasleen hizkuntza gaitasuna ez dela bat eta bakarra. Hizkuntza gaitasun horretan eragile desberdinek dute zeresana: lehen aipatu dugun gertuko komunitateak, zein hizkuntza eredutan ikasten duten, zein tratamendu ematen zaion hizkuntzari ikastetxean, egunerokoan duten erabilera, ingurune soziolinguistikoak, eta abar. Egitasmo honek horiek guztiak kontuan hartu eta egokitu beharko ditu. Esate baterako, Zalbidek aipatzen digun moduan (Zalbide, 2003) gure ikasleak trebeagoak dira gaitasun pasiboetan aktiboetan baino; aurrera egin da euskarazko aldaera edo erregistro jaso-formal espositiboetan eta atzera mintza-
jardunaren esparru informal-barrenkoi-intimoei dagokienean; aurrera euskara batuaren ezaguera formalean, eta atzera ohiko hots-ebakeran.

Bestalde, aipatu behar da euskararen ereduaren bilakaera eta hizkuntzen trataera bateratua hizkuntza gaitasuna zehazteko orduan.

— **Eskolaren zeregina**

Gure ustez, eskolak ahozkoa landu behar du, modu sistematikoan eta planifikatuan, eta Joserra Garziaren hitzak gogoratuta (Garzia, 2008), helburu edo xede komunikatiboarekin, diskurtsorako prestatu behar ditugu ikasleak. Eskolak diskurtsoa landu behar du, baina beti ere helburu komunikatibo bati begira. Sekuentzia didaktikoa proposatu dugu ahozkoa lantzeko tresna gisa eta testu generoak izanen dira kontuan. Baita horiek nola sekuentziatu curriculumean ere.

— Zer eta nola irakatsi behar denaren gainean, uste dugu ahozkoaren lanketa sistematikoa egitea dela eskolaren zeregina. Hona hemen dekalogo moduko bat; 10 aholku lagungarri:

1. Ikasleak, ikasturtero, behin grabatzea.
2. Testuak curriculumeko testu generoekin lotuta egotea.
3. Programatzea: urtean landuko diren gaitasunen artean ahozko gaitasuna lantzeko bereziki eginen diren jarduerak edo SDak zehaztea (maiztasunez).

4. Irakaslea ahal dela isilik egotea.
5. Ebaluazio eraikitzailea: kontrol zerrenda (ikasleak zer eskatuko zaion jakiteko) eta ebaluazio formatiboa.
6. Irakaslearen jarduna ebaluatzea. Hiprest taldearen jarduera honetan datza.
7. Bizi errealeko ahozko ereduak ematea, hau da: ahozko ereduak ematea eta eredu horiek errealak izan daitezen.
8. Ahozkoaren berezko lanketaren kontzientzia lantzea ikasleen eta irakasleen artean.
9. Ahozko lanketaren beste dimentsio bat. Ikaskideen arteko elkarrekin-tza gauzatzeko ahozkoa propio landu behar da. Hasi aldizkariko 123. zenbakian adierazitakoa (Ozaeta, 2007).
10. Ikasleekin egoera negoziatzea, adostea.

— Ahozko motak, erregistroak eskaintzea, hizkera ez-formala.

Ezaugarriak buruzko aurreko orrian aipatu dugun continuum horretan (**ahozko motak** erakusten duen **aniztasun** horren barruan) muturreko bi ahozko mota bereiztea proposatzen digute (Dolz & Schneuwlyk, 1998). Batetik, ahozko bat-batekoa edo solas gisako elkartruke komunikatiboetan aurkitzen dugun hizkera inprobisatua. Bestetik, “idatzi mintzatua” edo ahoz gauzaturiko idatzizko hizkuntza, hau da, aurretik idatzia edo planifikatua izan den testu batean oinarritutako ahozko ekoizpena. Muturreko bi ahozko praktika hauen arteko continuumean ezaugarri bereizgarriak dituzten ahozko erabilera ezberdinak aurkituko ditugu.

Ahozko hizkuntzaren lanketaren helburuak

Ahozko hizkuntza irakastearen **helburu nagusia** da gure ikasleak ahozko gaitasunetan trebatzea. Europak ezarritako 10 gaitasunetako bat da *Komunikazio gaitasuna* garatzea, eta horretan ari gara. Komunikazioaren bide zuzenena da ahozkoa, eta hori gelan propio lantzeko helburua dugu, ikasleak komunikatzeko asmoz ekoizten dituzten ahozko testuetan trebatzen joatea.

Bestelako xedeak:

- Ahozko hizkuntzaren programazioa egitea, eta horretarako curriculumeko edukiak lantzea. LHko curriculumak zein BHko curriculumak ere ahozkoari tokia eman diote; hala ere, garrantzi handiagoa eman beharko lioketelakoan gaude.
- Ahozkoa gelan lantzen hasteko oinarri didaktikoak finkatzea.

**Proposatutako
sekuentzia
didaktikoaren
egitura.**

**Dolz-ek eta
Schneuwly-k
proposatutako
egituratik
abiatuta.**

- Ahozkoaren ebaluazioan trebatzea. Horretarako nahitaezkoa da ikasleen ekoizpenak grabatzea, sekuentzia didaktikoak, alegia.
- Ikasgaien arteko zubiak eraikitzea.
- Hizkuntzen trataera bateratua, neurri batean bederen, bultzatzea hizkuntzak uztartuz (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzak).
- Irakasleen arteko elkarlana sustatzea.
- Irakasleak zein ikasleak teknologietan trebatzea.
- Ikasleek ezagutzen transferentzia egin dezaten bultzatzea.
- Ikasleen parte-hartze aktiboaren bidez, haien motibazioa sustatzea.
- Ikasleak talde lanean trebatzen joatea.

Ahozkoa lantzeko tresna: sekuentzia didaktikoa

Gure burua prestatzeko *Miker* eta *Mintzola* elkartetara jo genuen eta jasotako formazioari esker “Ahozkoa gelan irakastea” ikastaroa sortu genuen. Ikastaroan sekuentzia didaktikoa (SD) txertatu genuen ahozkoa lantzeko tresna eraginkor gisara, eta, diseinatutako SD hori gelaratu ondoren, baloratu egiten dugu (irakasleek, ikasleek eta guk gerorrek). (Larrigan & Idiazabal, 2012).

Sekuentziaren ardatza bertan jasotako helburu komunikatiboa da. Bestalde, ahal dela, sekuentziaren atal gehienak ikasleekin negoziatzea komeni da. Ikaslea, protagonista dela sentitzean, inplikatu egiten delako, eta ikasleak aktibatzeke metodologiak oso errentagarriak direla uste dugulako. Ikasleentzat, oro har, ahozko ekoizpena irakurtzea, idaztea edo entzutea baino zailagoa da. Aldi berean, ahozkoan aritzean, aritzearen poderioz, erosoago daudenez eta askoz ere emankorragoa denez, gustura aritzen dira eta horixe izan daiteke euskarara erakartzeko modu bikain bat.

9. irudia: “Ahozko hizkuntza irakastea” moodle plataforma

AHOZKO HIZKUNTZA IRAKASTEA

Moodle ikasgela

0 Sarrera 1. Ahozkoaren ikuspegia eskolan 2. Ahozkoa irakastea 3. Ahozkoaren szaugarriak 4. Sekuentzia didaktikoa 5. Ahozkoaren ebaluazioa 6. Adibideak: Sekuentzia didaktikoa

4. gaia: Sekuentzia didaktikoa

Zereginak

6. Sekuentzia didaktikoan sakontzea


7. Egoera eta helburu komunikatiboak

Entzun Joserra Garziaren solasaldia eta proposatu gelaratuko zenukeen egoera eta helburu komunikatibo bat testu genero bati lotuta

Zereginaren dokumentua

— Proposatutako sekuentzia didaktikoaren egitura:

10. irudia: Sekuentzia Didaktikoaren egitura



Dolz-ek eta Schneuwly-k proposatutako egituratik abiatuta, guk irakasleentzat egokia eta erabilgarria izan daitekeen txantiloia proposatu dugu, eta irakasleei hori betetzeko eskatzen diegu; horrela, egitura horri jarraitu ondoren, sekuentzien diseinua egina baitugu, eta beste edozein irakaslek hartu eta erabil dezake.

Txantiloia nola bete azaltzen dugu:

11. irudia: SDren diseinuaren adibidea

Ahozko hizkuntza irakastea

MAILA:

ARLOA:

IKASTURTEA:

IKASTETXEA:

TALDEKIDEAK/ EGILEAK:

AHOZKO SEKUENTZIA DIDAKTIKO BAT IKASLEAK AHOZKOAN GAITZEKO
EGOERA/ AZKEN HELBURU KOMUNIKATIBOA: Hau da sekuentziaren elementurik garrantzitsuen, motibazio iturri izan daitekeena eta hemendik x denborara zer egingo dugun eta zertarako egingo dugun zehazten duena. - Egoera: zertan dakigu?, denok dakigunetik abiatzen gara, marka sozial konpartitua sortzen da; alegia, abiapuntua da. Egoera irakasleak sortzen du ikasleekin negoziatuta eta zer egingen dugun jasoko dugu. - Helburu komunikatiboa: hizkuntza komunikazioan ulertzen denez, hizkuntza komunikatzeko denez, amaieran egingen dugun jardura (xede) komunikatibo horri erantzuteko egingo da sekuentzia. Hiru bat astez arituko gara honekin.
TESTU MOTA (ikuspegi diskurtsiboa) Lantzen ari garen testu generoari lotutako testu mota zehaztu. Hautatutako testu tipologia (esteka) honen arabera.
NEGOZIAKETA Ikasleekin egoeraren nahiz xede komunikatiboaren elementuak negoziatzea oinarritzkoa da ikasleak inplikatze, limurtze eta protagonistak diren heinean motibazioa handitze. Egiteko modua ADOSTEA eta konpartitzea oso inportantea da. Negozia daitezke: noiz egin, taldea, bakarka, gaia, antolaketa, grabazioa, norentzat egingen den, hizkera erregistroa, non egingen den...
AURRETESTUA (taldekako edo banakako bideo-grabazioa) Aurrettestua ikasleen lehenengo ekoizpena da eta ikasleek zer dakiten eta nora iristea nahi dugun zehazteko balio digu. Aurrettestua ikasleekin ezer landu gabe eraikitzen da; baina, ikasleen adinaren edo hizkuntza gaitasunaren arabera (hori irakasleak egokitu beharko du) aldamiajea egin eta behar dituen laguntza tresnak eskaini behar zaizkie. Irakasleak ikasleen ekoizpena aztertzen du eta hurrengo asteetan zertan hobetu behar duten erabakiko du. Nolako erregistroa egingen den zehaztu: grabazioa eta oharrak apuntatzea idatziz.
I. MODULUA: TESTUINGURUA / Komunikazio egoera Testuingurua beti landu behar den lehen modulua da. Komunikazioaren oinarritzko elementuak hemen zehazten direlako: hartzailea nor izango den, gaia, denbora, tokia, hizkuntza erregistroa
EREDUAK: ikasleei egoera errealean ematen diren ereduak eskaintzea. Kanpoko ahozko erreferenteak aztertu. Zein eredu erabiliko diren zehaztu. Komeni da erabilitako bideoen loturak hemen jasotzea.

Ahozko hizkuntza irakastea

Eredu bakoitzarekin zer landu nahi den jaso.

ZER LANDUKO DA?

Alde pragmatikoan landu nahi dena zehaztu; kontuan hartuta elementu ez berbalak (begirada, keinuak, distantzia, kokagunea...); hizkuntza erregistroa (formala/ez formala).

Esaterako:

- Gorputzaren mugimendua: jarrera, mugimendua, keinuak eta begirada.
- Espazioaren erabilera: espazioa betetzea, distantzia eta kontaktu fisikoa.
- Gaia hartzaileari egokitzea.
- Denbora ongi antolatzea.
- Jarritako helburua betetzen trebatzea.
- Hizkuntza hartzaileari eta gaiari egokitzea.

JARDUERAK/ATAZAK (AURREKO ATALEAN ZEHASTU DENA LANTZEKO)

- Eredu bat ikusi eta hartzailea kontuan hartuta erabilitako gorputz hizkuntza (jarrera, mugimendua, keinuak eta begirada) egokija den aztertzea.
- Gelaren erdian, bazter batean edo entzuleei bizkarra emanez hitz egitea.
- Gaiaren maila hartzaileari egokitu zaion aztertzeko galderak egin daitezke entzun ondoren (ea ulertu den, hiztegi teknikoegia erabili duen, maila zientifiko ulergaitza erabili duen...).
- Denbora antolatzen ikasteko ariketaren bat.

KONTROL ZERREDA

Landu diren elementuak baloratuko dira. Jarritako adibidearekin jarraituta honako hauek:

- Gorputzaren mugimendua egokija izan den: jarrera, mugimendua, keinuak eta begirada.
- Espazioaren erabilera egokija izan den.
- Gaia hartzaileari egokitzea lortu duen.
- Denbora ongi antolatu du?
- Jarritako helburua lortu du?

II. MODULUA: TESTUGINTZA (testualizazio mekanismoak)

Aukeraturitako testu motaren ezaugarriak hartuko dira kontuan. Testua ikuspegi diskurtsibotik landuko da.

EREDUAK: ikasleei egoera errealean ematen diren ereduak eskaintzea. Kanpoko ahozko erreferenteak aztertu.

Zein eredu erabiliko diren zehaztu. Komeni da erabilitako bideoen loturak hemen jasotzea.

Eredu bakoitzarekin zer landu nahi den jaso.

ZER LANDUKO DA?

Hautaturitako testu mota honi dagozkion ezaugarriak. Batetik, testu egitura/ ideiak antolatzea eta bestetik, gaiaren garapena (testu antolatzaileak).

Aital honetan txertaturiko ditugu aurkezpena gauzatzeko modua eta erabilitako euskarri lagungarriak (ikus-entzunezko baliabideak).

JARDUERAK/ATAZAK

Testua antolatzeko jarduerak egingen dira. Adibidez:

- Testu idatziak eta ahozkoak alderatu edukien antolaketari dagokionez. Testu mota bakoitzak noiz eta non duen sarrera, garapena eta amaiera aztertzeko.
- Ahozko testuak ikusi eta edukien arabera sailkatu.
- ...

KONTROL ZERREDA

Landu dena, eta bakar-bakarrik landutakoa, baloratuko da.

Ahozko hizkuntza irakastea
III. MODULUA: HIZKUNTZA ETA ESTRATEGIAK Batetik, hizkuntza baliabideak eta zuzentasuna (hizkuntza elementuak: lexikoa, ahoskera, baliabide morfosintaktikoak...) landuko dira. Bestetik, hizkuntzaz kanpoko komunikazioa (elementu paraberbalak: tonua, erritmoa, ozentasuna, isiluneak...).
EREDUAK: ikasleei egoera errealean ematen diren ereduak eskaintzea. Zein eredu erabiliko diren zehaztu eta eredu bakoitzarekin zer landu nahi den jaso. Erabilitako bideoen loturak hemen jaso.
ZER LANDUKO DA? Adibidez: - Hizkuntzaren baitan landu nahi ditugunak eta - Paraberbaletan: arnasketa - Erritmoa: azkar, motel... - Ezberdintasunak landu: zultik hitz egitea, eserita... - ...
JARDUERAK/ ATAZAK Hizkuntzari lotutako baliabideak eta hizkuntzaz kanpoko komunikazio jarduerak eginen ditugu. Adibidez: - Mimika - Arnasketa lantzeko ariketak - Mantis eta azkar testu bat irakurtzea - ...
KONTROL ZERRENDIA Landu dena ekarriko da.
KONTROL ZERRENDIA OROKORRA (3 kontrol zerrendak batzea). 3 moduluak egin ondoren, zertan ikasi dugun baloratzeke instituzionalizazioa dator. Hau da, irakasle eta ikasle artean adosten da kontrol zerrenda orokorra.
ONDOTESTUA Adostutako kontrol zerrenda orokorra esku artean dutela erailiko dute ondotestua eta berriro erregistratuko (grabatu) da.
EBALUAZIOA Sekuentzia gelaratu ondoren balorazioa bete (hurrengo txantiloia)

Bide honek ekarri dituen emaitzak ikaragarriak dira, besteen artean teknologia berrietan trebatzea (ikastaroak moodlen bidez direlako —on line—, irakasleek taldeko SDak google driven egiten dituztelako eta ikasleak bideoz grabatzen direlako) eta, esaterako, aurreko ikasturtean 88 SD eta 401 bideo grabazio jaso ditugu emandako prestakuntza ikas-taroetatik.

Ahozkoaren ebaluazioa: ikuspegia eta egindako urratsak.

Ahozko sekuentzia didaktikoetan landutakoa ebaluatzeke eta, ondorioz, ahozkoaren ebaluazioa egiteko, ondokoak hartu ditugu kontuan: batetik,

ikaslearen ekoizpenaren ebaluazioa, eta, bestetik, sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa. Lan hau Eduardo Aldasororekin batera (Euskara Ataleko teknikaria) egiten ari gara.

1. Ikaslearen ekoizpenaren ebaluazioa

Behin baino gehiagotan adierazi dugunez, ikaslearen ekoizpenak grabatzea ezinbestekoa da ahozkoaren ebaluazioa egiteko eta ebaluazio hori formatiboa izan dadin. Aurrettestua zein ondotestua grabatzen dira, bien arteko aldea eta bilakaera aztertzeko. Ahozkoa grabatzen ez badugu, erregistratzen ez bada, informazioa joan egiten da eta galdu egiten da sistematikoki ebaluatzeko aukera. Gainera, bideoei esker, ikasleak ahozkoaren kontzientzia lortzen hasi dira.

Nola ebaluatu ikaslearen ekoizpena:

— Prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek dute hitza, horregatik deitzen zaio ebaluazio eraikitzailea: norberak bere buruaren balorazioa egiten du, ikaskideena batzen zaio eta irakaslearenak beste biek adinako balioa du.

— Ahozko ebaluazioa idatzizko parametroetatik urrundu eta ahozkoaren ezaugarriak hartuko ditugu kontuan. Adibidez: ahozkoan errepikatzea gaia ez galtzeko modua da eta hiztegi soila erabiltzea ahozkoaren baliabide bat da.

— Sekuentzia didaktikoetan jasotako kontrol zerrenden arabera ebaluazioa egiten da, hau da, ikaslearen ebaluazioa kontrol zerrenden arabera izanen da. Dena ebaluatu beharrean, landu dena bakarrik (modulu bakoitzean bizpahiru elementu) ebaluatuko dugu. Horretarako komenigarria da sekuentzian landutako elementu guztien zerrenda eskura izatea eta horiekin kontrol zerrendak osatuko ditugu. Ikasleak egindako ekintzekin zertan gaitu den jakingo da.

— Ikaslearen ebaluazioan ikuspegi ezkorra erabili beharrean, hau da, gaizki egindakoa aipatu beharrean, ongi egindakoa indartzea komeni da.

— Ebaluazioa ikasteko prozesua da, hau da, ikaslea ahozkoan baloratu eta motibatu egin behar da. Esate baterako, lotsatia dena hasieran gehiegi ez behartu, eta, konfiantza hartu ahala, aurrera egin dezan animatu, ikasleak lasaitu eta abar. Erlatiboa da, hau da, zenbait ataletan gehienok ados egon gaitezke eta antzera ebaluatu, baina, kontuan

**Aurreko
ikasturtean 88
SD eta 401 bideo
grabazio jaso
ditugu emandako
prestakuntza
ikastaroetatik.**

**Bideoei esker,
ikasleak
ahozkoaren
kontzientzia
lortzen hasi dira.**

**Ahozko
ebaluazioa
idatzizko
parametroetatik
urrundu eta
ahozkoaren
ezaugarriak
hartuko ditugu
kontuan.**

hartu behar dira norberaren izaeraren ezaugarriak; ebaluazioa arrazoitu egin behar da, ez da nahikoa “oso ongi egin duzu” esatea; esan behar da “oso ongi egin duzu hau egin duzulako edo bestea egin duzulako”.

2. Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

SDren ebaluazioa egiteko bi atal izanen ditugu kontuan:

— Sekuentzia bera ebaluatzea, hau da, SDren ebaluazioaren baitan sartuko ditugu honakoak: SDa ongi diseinatua dagoen helburu komunikatiboa lortze aldera; adibidez: aurreikusitako elementu guztiak landu diren, ea egokiak diren testu motaren arabera, ea aurreikusi diren jarduerak egokiak izan diren landu nahi ziren elementuak lantzeko, ea ikusitako ereduak eta materialak egokiak izan diren, zer den ongi egindakoa eta zer den hobetu beharrekoa...

— Sekuentziaren transposizio didaktikoa, hau da, nola gelaratu dugun sekuentzia eta horrek zer eragin izan duen didaktikan eta ikaste-irakaste prozesua hobetzeko orduan.

Dena dela, ebaluazioa errazte aldera, bai sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa bai ikaslearen ekoizpenaren ebaluazioa, biak batera eta aldi berean, egiteko dokumentua prestatu dugu:

12. irudia: Ebaluaziorako dokumentua

X. ikasmailaren Sekuentziaren balorazioa eta bideoak aztertu ondoren, sekuentzian landutako elementuen balorazioa:

1. **HELBURU KOMUNIKATIBO**Aren egokitasuna
2. **SD**ren saio kopurua (eta maiztasuna)
3. Ikasle kopurua eta grabatutako ikasle kopurua
4. Negoziaketaren egokitasuna
5. Erabilitako ereduaren egokitasuna
6. Aztertutako edukiak (adibide gisako bat)

ALDAGAIK	AURRETESTUA	ONDOTESTUA
Testuingurua (1) Testuingurua/ Komunikazio egoera -Hartzailearen aurre ezagutzak kontuan hartu ditu? -Hartzaile kopurua kontuan hartu du? -Espazioa ongi erabili du? -Denbora ongi antolatu du? -Gaia egokia izan da? -Jarritako helburua lortu al du? -Testu molde egokia aukeratu du? -Hizkuntza erregistroa. Egoerari dagokion erregistroa (formala) erabili du?		
(2) Hizkuntzaz kanpoko komunikazioa - ELEMENTU EZ BERBALAK. Bogirada, distantzia, kokagunea eta keinuak.		
(3) Testu egitura/ ideiak antolatzea -SARRERA. Agurra, gaiaren aurkezpena. -GARAPENA. Gai nagusiak eta azpi-gaiak egoki garatu ditu? -AMAIERA. Amaiera aurre osan du, ideiak laburbildu ditu, proposamenen bat eta publikoari agurra?		
(4) Gaiaren garapena: testu-antolatzaileak -Lokailu eta testu antolatzailearen erabilera aberatsa eta egokia izan al da? -Gaia berreskuratu du? Ideiak birformulatu ditu?		
(5) Aurkezpena gauzatzeko		

modua eta euskarri lagungarriak -Ikus-entzunezko baliabideak (argazkiak, musika, Power Pointa, objektuak...) -Entzuleari egindako galdera zuzen eta erretorikoak. -Hartzailearentzat interesgarri diren gaien lanketa / aipamena. -Errealitatearekin lotura, adibideak emanaz, konparazioak eginez...		
(6) Hizkuntza baliabideak eta zuzentasuna HIZKUNTZA ELEMENTUAK. Lexiko egokia, makulu desegokirik ez (ordal makuluak, informalak...), ahoskera egokia eta zaindua, baliabide morfosintaktiko zuzenak, erredundantzia okerrik ez...		
(7) Hizkuntzaz kanpoko komunikazioa -ELEMENTU PARABERBALAK. Tonua, erritmoa, intentsitatea, ozentasuna, isiluneak...		

Ebaluazioaz

- Irakleen parte hartzea nolakoa izan da? Interesatuta aritu dira?
- Irakleak nola sentitu dira?
- Irakleen arteko koordinazioa egon da? Nolakoa izan da?
- Nola sentitu zara?

Ongi egindakoak

- ...
- ...

Hobetzekoak, aldatzekoak, hurrengo baterako

- ...
- ...

Zer gehitu nahi duzu?

Sortutako Ahozko hizkuntza irakastearen inguruko webgunea

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ahozko-hizkuntza-irakastea/home>

Zer da gune hau? Gune honek benetako kezka bati erantzun nahi dio.

Irakasleekin lanean hasi ginenean, gure irakasleek bi kezka zituzten: bata, haien ikasleek espero zitekeena baino euskara gutxiago erabiltzen zutela, eta ikasle horiek erabiltzen zuten/duten euskararen kalitatea ez dela espero zitekeena bezain kalitatekoa. Horren ondorioz, 2010/11 ikasturtean hasi ginen, hala eskatu ziguten ikastetxe eta irakasleekin, ahozkoaren lanketa sistematikoarekin eta planifikatuarekin.

Gune honetan, irakasleekin partekatu nahi dugu, ahozkoa eskolan lantzeari dagokionez, gure ikuspegia zein den, zertan oinarritu garen, hau da, gure oinarri teorikoak zeintzuk diren; zer-nolako prestakuntza eskaintzen dugun, irakasleek prestakuntza jaso ondoren ikuspegi hori eta metodologia hori gelaratzen dutelako eta gelaratutakoan ikasleek sortzen dituzten ekoizpenak jaso eta partekatzen ditugulako. Planteamendu didaktiko osoa jaso nahi izan dugu gune honetan. Hau da, ahozkoa landu nahi duen edozein irakasleren esku dago materiala; baliteke hasieran prestakuntza berezia behar izatea, ohituak ez gaudelako ahozkoa gelan lantzeraz.

Guretako fase bat bukatzen da, honekin ikus daitekeelako nola landu ahozkoa gelan. Guk proposamen bat egin dugu eta proposamen hori denboran aztertu eta egokitu beharko dugu gure helburuak lortzen ez badira; proposamen irekia da, eta, beraz, alda daitekeena.

Zer eskaini nahi dugu gune honetan? Guk, egitasmoan parte hartu duten ikasle eta irakasleen lanak eta gure esperientzia besteekin partekatu nahi izan dugu; plataforma dinamikoa izanen da aldatzen joango dena, atalak osatuta eta berreginda.

Gunearen maparen bidez lehen begiradan, jaso duguna ikus daiteke eta sarreran duzuen eskuineko bideoa entzunda, atal bakoitzean zer aurkituko duzuen jakingo duzue:

**Ahozko
hizkuntza
irakastearen
inguruko
webgunea.**

**Irakasleekin
partekatu nahi
dugu.**

13. irudia: "Ahozko hizkuntza irakastea" webgunearen egitura



Baliabide hauek eta ahozko hizkuntza irakasteko praktika hauek oso erabilgarriak izan daitezkeela uste dugulako SDen aukeraketa egin dugu eta eredu on gisara Ahozko Hizkuntza Irakastea izeneko gunean bildu ditugu. Guneak, batetik, alderdi teorikoa biltzen du eta, bestetik, ikastetxeetan sortutako, gelaratutako eta baloratutako SDak mailaka antolatuta jasotzen ditu. Gunearen helburu bat, hain zuzen ere, horixe izan da, ikastetxeetan sortutako material hau partekatzea eta denon eskura jartzea ahozkoaren lanketa sistematikoan, planifikatuan eta ebaluatuan aurrera pausuk emateko; ikasleen hitzak zein irakasleenak aintzat hartuta oso emaitza onak eman baititu geletan. Irudian ikus daitekeen moduan, sekuentzia didaktiko bakoitza ikas-maila bati dagokio eta bertan honako agiriak daude: sekuentzia didaktikoaren diseinua testu genero bati lotua; gero, ikasleen bideoak (aurretestua eta ondorettestua); ondoren, balorazioak, sekuentzia didaktikoarena eta bideoen balorazioa. Hona hemen antolaketaren lagina:

14. irudia: Sekuentzia Didaktikoak, bideoak eta balorazioak

Maila	SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK		BIDEOAK		BALORAZIOAK	
	Ikastetxea	Sekuentzia	Aurretestua	Ondotestua	SDren balorazioa	Bideoen balorazioa
DBH 1	Zizurko BHI	gizarte (ibaletako zibilizazioak)				
	Lizarrako Lizarralde BHI	azalpena	--	--		
	Pedro Atarrabakoa DBHI	jarraibide testua (iragarkia)	--			
DBH 2	Altasuko Mikel Donea BHI	jarraibide testua (mikroskopia)				
						

6. ONDORIOAK

I

Lorpenak

- Ahozkoaren lanketari bide bat eskaintzea, bide hori probatzea eta ikustea emaitza onak ematen dituela ikasleengan, egitasmoan sinestea.
- Ikasleak horrelako planteamendu batekin motibatuta sentitzea, ikasleen autonomia sustatzea, haien parte-hartzea, haien hizketaren gaineko gogoeta egitea, jendaurrean hitz egitera ausartzea.
- Ikasleak ahozkoan aurrera egiten dutela ikustea. Ikaragarri motibatzen du!
- Ahozkoaren planteamendu praktiko eta erreala sortzea.
- Irakasleek euren esku-hartzearen kontzientzia hartzea.
- Irakasleen arteko koordinazioa eta BHI, bereziki, ikasgaien arteko zubiak eraikitzea.
- Irakasleen prestakuntza aurrera egitea.
- Ahozkoa nola lan daitekeen zehaztea.
- Ahozkoaren ebaluazioan urratsak ematea.
- Ikasleei ahozkoan zer eskatuko zaien zehaztea.

Zailtasunak

- Guk izan ditugunak:
- Denbora: irakasleek prestakuntzarako duten denbora gutxi.
- Baliabide falta: pertsonalak (bi lagun) eta materialak. Adibidez, ikus-

Argi dago, ahozkoa, curriculumaren atal inportantea izanda, sistematikoki planifikatu eta landu behar dela eta irakasleen arteko koordinazioa, elkarlana eta gelako esperientziak partekatze beharra dagoela.

entzuneko materialak (testu motaren eta adinaren arabera sailkatuta ez izatea), ebaluazio txantiloirik ez izatea, zer ebaluatu behar den ez jakitea, intuizioz jokatzeara. Nabarmen ikusi dugu, ahozkoa sistematikoki ez lantzeaz gain, ez dela behar den bezala ebaluatzen.

Beraz, ahozkoaren ebaluazioan dagoen hutsuneari aurre egin nahian, urte hauetan grabazio asko egin dira eta ikasleekin bideo horiek aztertu dira. Bideoei esker, ikasleen ahozkoaren gaineko kontzientzia piztea lortzen hasi gara. Ikasleek badakite ahozko ekoizpenean zer eskatuko zaien eta ahozko testu on bat sortzeko eman behar dituzten urratsak ezagutzen dituzte.

— Irakasleekin lanean ikusi ditugunak

Irakasleen helburuek eta lanak bat etorri behar dute. Gure kexa baldin bada ikasleak ez direla behar bezala euskaraz komunikatzen, ahozkoari behar duen garrantzia eman behar zaio eta sistematikoki landu.

Horretan, askotan, topikoak eta akatsak ikusten dira: esate baterako, sekuentzien dinamikarekin hasi eta ez jarraitzea, ahozkoa nahi gabe lantzen dela edo ahozkoa lantzen denean curriculumetik aparteko zerbait egiten dela pentsatzea, ahozkoa behin bakarrik landu eta dena baloratzea, akatsaren tratamenduan bakarrik erreparatzea, idatzikoen parametroak erabiltzea ebaluatzeko, hartzailea eta testuinguruaren aldagaiak kontuan ez hartzea.

Praktikan, helburuaren eta lanaren arteko koherentziarik ez dagoela ikusten da batzuetan: irakasleak, edukien transmisioarekin kezkatua, hitz egiten du denbora gehienetan; elkarrekintza irakasleak ikasleei egiten dizkien galderei erantzutera mugatzen da, horiek baietz edo ezetz, izen bat edo esaldi simple batekin erantzun behar dutela; planifikatu gabeko eta motibazio eskaseko eztabaida motzak proposatzen dira; ikasleen ekoizpena ez da ebaluatzen.

Argi dago, ahozkoa, curriculumaren atal inportantea izanda, sistematikoki planifikatu eta landu behar dela eta irakasleen arteko koordinazioa, elkarlana eta gelako esperientziak partekatze beharra dagoela.

Horretarako, argi ikusten da irakasleen prestakuntza beharra.

Aurrera begirako erronkak

Erronkak

Ahozko hizkuntza modu sistematikoan eta planifikatuan geletan lantzeko egitasmoa hedatzea, ikasleak ahozkoan trebeak izan daitezen eta euskaraz hitz egiten eroso senti daitezen bultzatzea da asmoa. Hortaz, egitasmoa zabaltzea eta sendotzea da erronka nagusia. Ez dadila ikasturte bakar bateko kontua izan, geletako metodologian eta funtzionamenduan eraginen duen bidea baizik. Horretarako, zenbait urratsekin aurrera egitea ezinbestekoa da:

- Prestakuntzarekin.
- Ahozkoaren lanketa curriculumeko edukiekin uztartzea; helburua komunikazio gaitasunak lantzea baita, ez eduki gehiago txertatzea.
- Irakasleen arteko koordinazioa erraztea.
- Ahozkoaren ebaluazioari heltzea mailaka.●

BIBLIOGRAFIA

- Aldasoro, E., Anaut, D., Mugertza, E., Olasagarre, Y., Ramos, R. (2012): *Motibazioa Sustatzeko Baliabideak bloga*. <http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/>
- Amonarriz Gorria, E.; Osa, E.; Arruti, I. (2004): "Ahozkotasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntz proiektuaren markoan", *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 51:137-156. <http://www.sociolinguistika.eus/node/1379>
- Broncart, Jean-Paul (2004): *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*, Madrid, Fundación Infancia y Aprendizaje.
- Broncart, Jean-Paul (2008): *Desarrollo del lenguaje y didáctica de las lenguas*, Buenos Aires: Miño y Dávila.
- Calsamiglia, H., Tusón, A. (2007): *Las cosas del decir (Manual de análisis del discurso)*, Barcelona: Ariel Lingüística.
- Casas, M., Comajoan, Ll., Vilá, M. (2015) "Definición de competencia oral y diseño de rúbricas para la evaluación." <http://aulaambitoinvestigacion2015.mondragon.edu/es/articulos/grell> (pasahitza behar du)
- Cooper, R.L. (1989): *Language Planning and Social Change*. Cambridge: University Press.
- Dolz, J. (2006): "Ez da nahikoa hizkuntza bat erabiltzea; mintzamenak irakasgaia ere izan beharko luke" elkarrizketa, *Asmoz Fundazioa*. http://www.euskonews.com/0352zbk/elkar_eu.html
- Dolz, J. & Gagnon, R. (2010): "El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito", *Lenguaje*, 38

- (2): 497-527. <http://bibliotecadigital.univalle.edu.co/bitstream/10893/3518/1/Art09-497.pdf>
- Dolz, J., Gagnon, R., Mosquera, S. (2009): "La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción Didáctica", *Lengua y Literatura*, vol. 21: 117-141.
- EHU-UPV. Elebilab Argitalpenak. Psikolinguistika laborategia. http://www.elebilab.com/public_publicaciones/ctrl_publicaciones.php?seccion=adquisicion_y_uso
- Esteve, O. (2004): "Nuevas perspectivas en la formación de profesorado de lenguas: hacia el «aprendizaje reflexivo» o «aprender a través de la práctica»", Bremen: Actas de las Jornadas Didácticas de Español y Alemán como Lenguas Extranjeras. http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/publicaciones_centros/PDF/bremen_2004/02_esteve.pdf
- Esteve, O. (2007): *El discurso indagador: Cómo construir conocimiento. La Educación Superior hacia la Convergencia Europea*, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Mondragón, Mondragón.
- Fishman, J. (1991): *Reversing language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*, Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J. (1988): *Sociología del lenguaje*, Madrid: Cátedra.
- Garro, E. (2007): *Jendaurreko debateak euskaraz* doktorego tesia, UPV-EHU.
- Garzia, J. (2008): *Jendaurrean Hizlari*, Donostia: Alberdania.
- Garzia, I., Imaz, A., Diaz de Gereñu, L., Alegria, A. (2010): "Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan", *Tantak*, 22 (1): 7-42 <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Tantak/article/viewFile/2187/2254>
- Gilbert, Ian (2005): *Motivar para aprender en el aula. Las siete claves de la motivación escolar*, Barcelona: Paidós
- Goikoetxea, J.L. (2005): "Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna", *Euskera*, 2: 747-764. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/65884.pdf>
- Idiazabal, I. (2011): "Eleaniztasuna hezkuntzaren derrigorrezko beste utopia bat?", *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 81: 89-105.
- Larringan, L.M. (2009): "Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza" in *Euskera*, 54 (2- 1. zatia): 505-539.
- Larringan, Luis M.; Idiazabal, Itziar (2012): "Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta minimoki fidagarria", *Ikastaria*, 18: 13-44
- Lomas, C. (Koord.). (2015): *Fundamentos para una enseñanza comunicativa del lenguaje*, Barcelona: Graó.

- Manterola, I. (2010): *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa* doktorego tesia, UPV-EHU.
<https://addi.ehu.es/bitstream/10810/8260/9/manterola.pdf>
- Moreno, V. (2008): *Dale que dale a la lengua*. Tomo I eta II. Iruña: Pamiela.
- Mugertza, E., Olasagarre, Y. (2010): "Nafarroako hainbat ikastetxetan euskararen erabilera sustatzen ari zarete. Nola?", *Hik Hasi*, 149: 28-32.
- Ozaeta, A. (2007). "Ikasleek ez dute esperientziarik ahozko hizkuntza jasoan hitz egiteko. Ahozko aurkezpenik apenas egiten da eskola garaian. Zer ondorio ditu horrek? Nola saihestu hori?". *Hik Hasi*, 123: 30-32
- Palou, J., Bosch, C. (Koord.) (2005): *La lengua oral en la escuela. 10 experiencias didácticas*, Barcelona: Graó.
- Plazaola, I., Alonso, M.P. (ed.) (2007): *Testuak, diskurtsoak eta generoak: euskal testuen azterketa korrontea*, Donostia: Erein.
- Plazaola, I. (2013): "Irakasle hasiberriaren esperientzia", *Ikastaria*, 19: 139-169.
- Rocher, G. (1983): *Introducción a la sociología*, Barcelona: Herder.
- Sainz, M. (koord.). (2010): "Ahozko hizkuntza lantzen", *Hik Hasi* 25, monografikoa, Donostia.
- Sainz, M., Garro, E., Ozaeta, A., Perez Lizarralde, K., Egiazabal, D. (2009): "Gelako interakzioa: irakasleen esku-hartzea eta ikasleen ahozko ekoizpena. Jolas arauen azalpena Lehen Hezkuntzako ikasleen eskutik", *Euskera*, 54 (2- 1. zatia): 541-577.
- Sanchez Carrion, J.M. "Txepetx". (1991): *Un futuro para nuestro pasado*, Donostia: Elkar.
- <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/viewFile/8593/8341>
- Sanchez Carrion, J.M. "Txepetx" (1980): *El espacio bilingüe*, Iruña: Eusko Ikaskuntza.
- http://hedatuz.euskomedia.org/8680/1/espacio_bilingue.pdf
- Soziolinguistika Klusterra (2013): *Ikasleak Hiztun*, 2011ko Arrue Proiektua, Ikerketaren emaitza, Adituen iritzi-azalpenak, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- Ruiz Bikandi, U. (apailatzailea). (2010): *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*, EHU-UPV.
- Ruiz Bikandi, U. (Koord.). (2011): *Lengua castellana y literatura. Investigación, innovación y buenas prácticas*, Barcelona: Graó.
- Unzué, A. (2009): *Debaterako argudiak. Bigarren Hezkuntzako arloko guztietarako proposamena*, Nafarroako Gobernua.
- Vilá, M. (Koord.) (2005): *El discurso oral formal. Contenidos de aprendizaje y secuencias didácticas*, Barcelona: Graó.
- Vilá, M., Castella, J.M. (2014): *10 ideas clave. Enseñar la competencia oral en clase*, Barcelona: Graó.

- Zabala, J. (2013): "Ahozko hizkuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian", *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 87-88, (2-3):127-148.
- Zabala, A., Arnau, L. (2007): *Cómo aprender y enseñar competencias*, Barcelona: Graó.
- Zalbide, M. (2003): "Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?", *erabili.eus*
http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834
- Zarraga, A. (bater.) (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf